

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Hasierako onarpena ematea 2/2020 kreditu gehigarriaren espedienteari

Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrillak 2020ko uztailaren 23an egindako ohiko Osoko Bilkuran adostu zuen hasierako onarpena ematea 2/2020 kreditu gehigarriaren espedienteari.

3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, esandako espedientea jendauerrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitara eman eta hurrengo lan egunetik aurrera kontatzen hasita. Epe horretan, interesa dutenek hura aztertu eta Osoko Bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da kreditu gehigarriaren espedientea.

Guztiek jakin dezaten eta bidezko ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Laguardia, 2020ko uztailak 23a

Presidentea

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA